# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**4764**

**43/2012 FORU DEKRETUA, abuztuaren 3ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da 39/2007 Foru Dekretua, apirilaren 24koa, Arabako Lurralde Historikoan mendekotasun egoera onartzeko prozedura, beregain izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendekoei eskaini beharreko laguntzak arautzen dituena.**

Diputatuen Kontseiluak 39/2007 Foru Dekretua onartu zuen, 2007ko apirilaren 24an, eta apirilaren 24ko ALHAOn argitaratu zen. Kontuan izanda zer aurreikuspen gutxi zegoen mendetasun egoera onartzeko prozeduran, eta Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak (abenduaren 15eko EAO) 28. artikuluan jasoriko prestazioak jasotzeko eskubidea onartzean, dekretu horren xedea zen administrazio prozedura bat garatzea, balorazio eskaerak bideratzeko, eta, hala bazegokion, baliabideak esleitzeko, pertsona bakoitza zer mendetasun egoeran zegoen. Gainera, asmoa zen prozedura hori osorik egokitu zedila, arau horren bidez, Arabako Lurralde Historikoko antolamendu eta erakunde ezaugarrietara.

Berriki onartu den uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak, aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoak (uztailaren 14ko EAO), mendetasun egoeraren beste sailkapen bat ezartzen du, desagerrarazi egiten ditueta pertsonak zer autonomia zuen eta zer zaintza behar zuen esleitzen ziren hiru graduetako bakoitza osatzen zuten bi mailak. Ondorioz, desagerrarazi egiten ditu bere III. Tituluan Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak (abenduaren 15eko EAO) mailei buruz jasotzen zituen erreferentzia guztiak.

Arau horrek berak bere zortzigarren xedapen iragankorrean adierazten duenez, aldaketa hori egin izanak ez du esan nahi berriz ere onartu behar zaienik mendetasun egoerarik 2012ko uztailaren 15 baino lehen –orduantxe sartu zen indarrean araua- gradu eta mailaren bat onartuta zutenei. Edonola ere, berrikuspenik sortuz gero, horren ondoriozko balorazioa bai egokitu behar zaio abenduaren 14ko 39/2006 Legeak 26. artikuluan jasoriko graduen egitura berriari.

Horiek horrela, beharrezkoa da maiatzaren 14ko ALHAOn argitaraturiko apirilaren 24ko Diputatuen Kontseiluaren 39/2006 Dekretuaren edukia egokitzea, mailei egindako lehengo erreferentziak desagerraraziz, eta mendetasun graduei buruzko erreferentziei soilik eutsiz.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, 7. artikuluko 1.3 paragrafoaren bidez, Diputatuen Kontseiluari egozten dio estatuko eta autonomiako legeak garatzeko foru dekretuak onartzeko eskumena, arauak garatzeko ahalmena baliatuz, horretarako berariaz gaitu bada.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO SERVICIOS SOCIALES

**4764**

**DECRETO FORAL del Consejo de Diputados 43/2012, de 3 de agosto, que modifica el Decreto Foral 39/2007, de 24 de abril, que reguló el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia, el derecho y acceso a los servicios del sistema para la autonomía y atención a la dependencia en este Territorio Histórico.**

El 24 de abril de 2007 se aprobó por el Consejo de Diputados el Decreto Foral 39/2007, publicado en el BOTHA del 24 de abril. El objeto del mismo fue, ante la parquedad de las previsiones en materia de procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia y del derecho de acceso a las prestaciones contenidas en el Artículo 28 de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, BOE del 15 de diciembre, desarrollar un procedimiento administrativo, que sirviera de cauce a las solicitudes de valoración y, en su caso, a la asignación de recursos, según la situación de dependencia de cada persona. Asimismo, se pretendía a través de dicha norma que tal procedimiento se adaptara plenamente a las características organizativas e institucionales del Territorio Histórico de Álava.

El recientemente aprobado Real Decreto-Ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad, BOE del 14 de julio, establece una nueva clasificación de la situación de la dependencia al suprimir los dos niveles en que anteriormente se dividía cada uno de los tres grados en función de la autonomía de la persona y de la intensidad del cuidado que requerían. Consecuentemente, elimina en su Título III todas las referencias a los niveles que anteriormente contenía la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, BOE del 15 de diciembre.

Según se señala en la Disposición Transitoria Octava de la misma norma esta modificación no implica para aquellos que ya tenían reconocido un grado y nivel de dependencia antes del 15 de julio de 2012, fecha de su entrada en vigor, la necesidad de un nuevo reconocimiento de su situación. No obstante, en el caso de que se produjera esa revisión, la valoración resultante sí habría de adecuarse a la nueva estructura de grados recogida en el Artículo 26 de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre.

A la vista de lo anterior resulta necesario adecuar el contenido del Decreto 39/2007, del Consejo de Diputados, de 24 de abril, BOTHA de 14 de mayo, eliminando las anteriores referencias a los niveles y conservando únicamente las que aluden a grados de dependencia.

El artículo 7, apartado 1.3, de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, atribuye al Consejo de Diputados la competencia para aprobar Decretos Forales de desarrollo de la legislación estatal y autonómica, en ejercicio de la potestad de desarrollo normativo cuando se le haya habilitado expresamente.

En su virtud y a propuesta de la Diputada de Servicios Sociales y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

XEDATU DUT

LEHENENGOA.- Apirilaren 24ko Diputatuen Kontseiluaren 39/2007 Foru Dekretuaren 10. artikuluko 2. paragrafoa aldatzea. Foru dekretu horren bidez, arautu egiten dira Arabako Lurralde Historikoan mendetasun egoera onartzeko prozedura, autonomia izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendetasun egoeran daudenak zaintzeko laguntza. Honela idatzita geratuko da:

"2. Ebazpen proposamenak alderdi hauek jasoko ditu:

- Mendetasun gradua.
- Mendetasun egoera behin-behinekoa den ala behin betikoa.
- Berrikuspen data, hala badagokio.
- Proposaturiko mendetasun graduari dagozkion baliabideen katalogoa".

BIGARRENA.- Apirilaren 24ko Diputatuen Kontseiluaren 39/2007 Foru Dekretuaren 11. artikuluko 3. paragrafoa aldatzea. Foru dekretu horren bidez, arautu egiten dira Arabako Lurralde Historikoan mendetasun egoera onartzeko prozedura, autonomia izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendetasun egoeran daudenak zaintzeko laguntza. Honela idatzita geratuko da:

"3. Ebazpena arrazoitu egingo da, eta ondokoez jardungo da:

- Mendetasun gradua.
- Mendetasun egoera behin-behinekoa den ala behin betikoa.
- Berrikuspen data, hala badagokio.
- Proposaturiko mendetasun graduari dagozkion baliabideen katalogoa.
- Arrazoiak, baldin eta ez bada sartzen ebazpen proposamenean".

HIRUGARRENA.- Apirilaren 24ko Diputatuen Kontseiluaren 39/2007 Foru Dekretuaren 13. artikuluko 4. paragrafoa aldatzea. Foru dekretu horren bidez, arautu egiten dira Arabako Lurralde Historikoan mendetasun egoera onartzeko prozedura, autonomia izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendetasun egoeran daudenak zaintzeko laguntza. Honela idatzita geratuko da:

"4. Behin 1. puntuak adierazitako agiriak jaso eta aztertu ondoren, erreferentziazko profesionalak elkarrizketa izango du mendeko pertsonarekin, edo, hala badagokio, erregelamendu honek 2.4 artikuluan aipatutakoren batekin, eta elkarrizketak dirauen denboran beren arazoari eta onartutako mendetasun graduari ondoen egokitzen zaizkien laguntzeko aukeren berri emango die".

LAUGARRENA.- Apirilaren 24ko Diputatuen Kontseiluaren 39/2007 Foru Dekretuaren 15. artikuluko 2. paragrafoa aldatzea. Foru dekretu horren bidez, arautu egiten dira Arabako Lurralde Historikoan mendetasun egoera onartzeko prozedura, autonomia izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendetasun egoeran daudenak zaintzeko laguntza. Honela idatzita geratuko da:

"Autonomiarako eta mendetasun egoeran daudenak zaintzen laguntzeko sistema garatuko duen araudiak ezarritakoak izango dira ekonomia balorazioko irizpideak, eta, hala badagokio, Diputatuen Kontseiluak edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak onarturikoak.

Irizpide horiek oinarri puntuazio bat esleituko zaio eskatzaile bakoitzari, zeinari esker gizarte baliabideak mendetasun gradu berdina onartuta dutenen artean berresleitzeko lehentasunen hurrenkera ezarriko baita, hala badagokio.

Gainera, balorazio irizpide horien bidez, pertsona onuradunak jasoko duen zerbitzua finantzatzeko zenbateraino parte har dezakeen hark zehaztu ahalko da, edo, hala badagokio, zer prestazio jasoko duen; hori guztia zer diru gaitasun duen".

BOSGARRENA. - Apirilaren 24ko Diputatuen Kontseiluaren 39/2007 Foru Dekretuaren 22. artikuluko 1. paragrafoa aldatzea. Foru dekretu horren bidez, arautu egiten dira Arabako Lurralde Historikoan

DISPONGO

PRIMERO.- Modificar el apartado 2 del Artículo 10 del Decreto Foral 39/2007, del Consejo de Diputados, de 24 de abril, que regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia, el derecho y acceso a los servicios del sistema para la autonomía y atención a la dependencia en el territorio Histórico de Álava, que queda redactado de la siguiente manera:

"2. La propuesta de resolución contendrá los siguientes aspectos:

- Grado de dependencia.
- Carácter provisional o definitivo de la situación de dependencia.
- Fecha de revisión en su caso.
- Catálogo de recursos que corresponden al grado de dependencia propuesto."

SEGUNDO.- Modificar el apartado 3 del Artículo 11 del Decreto Foral 39/2007, del Consejo de Diputados, de 24 de abril, que regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia, el derecho y acceso a los servicios del sistema para la autonomía y atención a la dependencia en el territorio Histórico de Álava, que queda redactado de la siguiente forma:

"3. La resolución deberá ser motivada y se pronunciará sobre los siguientes extremos:

- Grado de dependencia.
- Carácter provisional o definitivo de la situación de dependencia.
- Fecha de revisión en su caso.
- Catálogo de recursos que corresponden al grado de dependencia propuesto.
- Justificación pertinente, si se aparta de la propuesta de resolución."

TERCERO.- Modificar el apartado 4 del artículo 13, del Decreto Foral 39/2007, del Consejo de Diputados, de 24 de abril, que regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia, el derecho y acceso a los servicios del sistema para la autonomía y atención a la dependencia en el territorio Histórico de Álava, que queda redactado de la siguiente forma:

"4. Una vez recibida y analizada la documentación señalada en el punto 1, el/la profesional de referencia mantendrá una entrevista con la persona dependiente o, en su caso, con alguna de las que se mencionan en el artículo 2.4 del presente Reglamento, durante la cual le propondrá las alternativas asistenciales que más se adecuen a la problemática presentada y al grado de dependencia reconocido."

CUARTO.- Modificar el apartado 2 del artículo 15, del Decreto Foral 39/2007, del Consejo de Diputados, de 24 de abril, que regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia, el derecho y acceso a los servicios del sistema para la autonomía y atención a la dependencia en el territorio Histórico de Álava, que queda redactado de la siguiente forma:

"Los criterios de valoración económica serán los establecidos en la normativa que desarrolle el Sistema Para la Autonomía y Atención de la Dependencia y, en su caso, los aprobados por el Consejo de Diputados o por el Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social.

En virtud de estos criterios se asignará a cada persona solicitante una puntuación que, en su caso, permitirá ordenar las prioridades en la reasignación de recursos sociales entre quienes tienen reconocido igual grado de dependencia.

Además, estos criterios de valoración servirán para determinar la participación de la persona beneficiaria en la financiación del servicio que se le preste o, en su caso, la cuantía de la prestación, todo ello según su capacidad económica."

QUINTO. - Modificar el apartado 1 del artículo 22, del Decreto Foral 39/2007, del Consejo de Diputados, de 24 de abril, que regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de depen-

mendetasun egoera onartzeko prozedura, autonomia izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendetasun egoeran daudenak zaintzeko laguntza. Honela idatzita geratuko da:

"1. Baliabideak berresleitzeko programa tresna bat da zeinaren bidez Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak lehentasun hurrenkera bat ezartzen duen foru sare publikoko eguneko, gaueko edo egoitzetako zentroetara sartzeko, mendetasun gradu berdina aitortu dieten pertsonen artean, erregelamendu honen 15.2 artikuluak xedaturikoarekin bat etorriz".

SEIGARRENA.- Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

ZAZPIGARRENA.- Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 3a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## HERRILAN ETA GARRAIO SAILA

4748

**431/2012 ERABAKIA, abuztuaren 3ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da lurralde historiko honetan bizi diren AP-68 autobidearen erabiltzaileek diruz laguntzekoa den bide zatian ordaindutako bidesarirako dirulaguntzak emateko deialdiaren zenbatekoa.**

"Otsailaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren 9/2002 Foru Dekretuaren bidez, ohiko bizilekua Arabako Lurralde Historikoan eduki eta A-68 autobidea Arabako lurraldean erabiltzen zuten pertsona fisikoentzako bidesari hobariak ezartzeko dirulaguntzen deialdia onartu zen, baita oinarri arautzaileak ere.

Ondoren, maiatzaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 31/2012 Foru Dekretuaren bidez, onartu egin zen Arabako Lurralde Historikoan bizi diren AP-68 autobidearen erabiltzaileek diruz laguntzekoa den bide zatian ordaindutako bidesarirako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak, 2002an onartuak, aldatzea.

Foru dekretu horren bidez, 2012ko ekainaren 1etik aurrera egindako joan-etorrietarako dirulaguntzak emateko deialdia onartu zen (zenbatekoa: 100.000,00 euro).

Hala ere, apirilari eta maiatzari dagozkien ordainketek ez dutenez nahikoa saldo xedapenean, ez dagoenez saldo erabilgarririk partidan eta, egungo egoera ekonomikoa dela eta, ezin denez kopuru hori handitu, beharrezkoa da deialdi berriaren zenbatekoa 59.350,05 euroraino murriztea; izan ere, aurre egin behar zaie apirilean eta maiatzean autobidea erabili duten eta bidesariko hobarien onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten erabiltzaileekin hartutako konpromisoei.

Horregatik, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Aldatzea maiatzaren 22ko 31/2012 Foru Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarria. Hori horrela, aipatutako dirulaguntzak emateko 2012ko deialdirako 59.350,05 euro utziko dira, zeinak Arabako Foru Aldundiaren 2012ko Gastu Aurrekontuaren 50.1.07 54.00 460.00.01 aplikazioaren kontura (50-40 lerroa, "AP-68ko bidesari soziala", xedapen erreferentzia 105-1730/000.12.1.12) ordainduko diren.

Bigarrena.- Apirileko eta maiatzeko dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, maiatzera arte kontsignatutako gastua 40.649,95 eurotan handitzea, 105-903/000/000.12.1.12 agiri erreferentziaren kontura."

dencia, el derecho y acceso a los servicios del sistema para la autonomía y atención a la dependencia en el territorio Histórico de Álava, que queda redactado de la siguiente forma:

"1. El programa de reasignación de recursos es el instrumento a través del cual el Instituto Foral de Bienestar Social establece un orden de preferencia en el acceso a los centros de día, de noche o residenciales de la red pública foral entre las personas que han obtenido el reconocimiento de un mismo grado de dependencia, conforme a lo previsto en el artículo 15.2 del presente Reglamento."

SEXTO.- El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA.

SÉPTIMO.- Ordenar su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 3 de agosto de 2012.– El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputada de Servicios Sociales, MARTA ALAÑA ALONSO.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

4748

**ACUERDO 431/2012, del Consejo de Diputados de 3 de agosto, que modifica el importe consignado para la convocatoria de las subvenciones en el peaje satisfecho en el tramo subvencionable por los usuarios de la autopista AP-68 residentes en este Territorio Histórico para 2012.**

"Mediante Decreto Foral del Consejo de Diputados 9/2002, de 5 de febrero, se aprobó la convocatoria de subvenciones dirigidas al establecimiento de bonificaciones en el peaje para las personas físicas con residencia habitual en el Territorio Histórico de Álava usuarios de la autopista A-68, que circulen por territorio alavés, así como las bases reguladoras.

Posteriormente, mediante Decreto Foral 31/2012 de Consejo de Diputados, de 22 de mayo, se aprobó la Modificación de las bases reguladoras para la concesión de subvenciones en el peaje satisfecho en el tramo subvencionable por los usuarios de la autopista AP-68 residentes en el Territorio Histórico de Álava aprobadas en 2002.

En dicho Decreto Foral se aprobaba la Convocatoria dirigida a la concesión de las citadas subvenciones para los viajes realizados a partir del 1 de junio de 2012 y se consignaba una cantidad de 100.000,00 €.

No obstante, dado que los pagos correspondientes a abril y mayo no tienen saldo suficiente en el contraído y dado que la partida no dispone de saldo disponible y no es posible aumentar el mismo por la actual situación económica, es necesario reducir el importe de la nueva convocatoria a 59.350,05 €, para poder hacer frente a los compromisos adquiridos con los usuarios que han utilizado la autopista durante los meses de abril y mayo y que cumplen con los requisitos para ser beneficiarios de las bonificaciones en el peaje.

En su virtud, a propuesta de la Diputada de Obras Públicas y Transportes, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy.

ACUERDO

Primero. Modificar la Disposición Adicional Primera del Decreto Foral 31/2012, de 22 de mayo, dejando un importe de 59.350,05 € para la convocatoria dirigida a la concesión de las citadas subvenciones para el ejercicio 2012, con cargo a la aplicación presupuestaria 50.1.07 54.00 460.00.01, línea 50-40 "Peaje Social AP-68", del Presupuesto de Gastos de la Diputación Foral de Álava para 2012, referencia de contraído 105-1730/000.12.1.12.

Segundo. Aumentar el gasto consignado hasta mayo, por importe de 40.649,95 € con cargo a la referencia de documento 105-903/000/000.12.1.12, para el pago de las subvenciones de abril y mayo."